



IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA

Ikastetxearen izena:

IES Usandizaga-Peñaflorida-Amara BHI

Ikastetxearen kodea:

013025

Data:

2023(e)ko ekainaren 16(a)





1. SARRERA

Ikastetxearen testuingurua

Kokapena, mailak, ikasleria, klaustroa, familien maila sozioekonomikoa eta baliabide teknologikoak, ikastetxearen ikuspegia eta baloreak...

Ikastetxearen testuingurua

Gure ikastetxea Donostiako Amara auzoan dago, bi eraikinetan banatuta: Salaberria Kanean "Peñaflorida" eraikinean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza irakasten da eta Aitzol Parkean "J.M. Usandizaga" eraikinean Batxilergoa eta Goi Zikloko Arte eta Diseinua.

Aurtengo klaustroa guztira 240 irakasle inguruk osatu dute eta irakasle ez diren beste 22 lagun (idazkaritza, atezaintza, garbiketa eta jantokian) ere aritu dira lanean.

Institutuan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH) ikasmaila bakoitzeko 8 talde ditugu. Horiez gain, Aniztasun Curricularreko 2 talde eta ZIG gela ere baditu. 2022-23 ikasturtean 778 ikasle izan ditugu.

Batxilergoan goizeko ordutegian 3 modalitateak (Arteetakoa, Zientziak eta Teknologia eta Giza- eta Gizarte-Zientzietakoa) eskaintzen dira eta gaueko batxilergoan bi (Zientziak eta teknologia eta Giza- eta Gizarte-Zientzietakoa). 2022-23 ikasturtean 722 ikasle izan ditugu.

D ereduarekin batera, DBHn B eredia eta goizeko Batxilergoan A eredia ere eskaintzen da, hurrenez hurren.

Arte Grafikoan eta Diseinuari dagokionez, berriz, 2022-23 ikasturtean 24 ikasle izan ditugu bi mailetan.

Gure ikasleak DBH egitera inguruko Lehen Hezkuntzako lau ikastetxeetatik etortzen dira: Aiete HLHI, Amara Berri HLHI, Ikasbide Ikastola HLHI, Katalina Erauso HLHI. Batxilergo eta Zikloko ikasle asko ere auzoan bizi dira, baina beste asko probintziako beste herrietatik datoz, besteak beste, Errenteria, Astigarraga, Hernani, Lasarte, Lezo edota Zarauztik.

Gure ikastetxearekin bat egiten duten ezaugarri eta printzipioei dagokienez, honakoak nabarmen ditzakegu: anitza, elebiduna, demokratikoa, euskal gizartearen zerbitzura dagoena, gizarte eta kultura mailan bere ingurunean errotua, partaidetzakoa, ezberdintasunen berdintzaile eta dibertsitateen bateratzaile.

Irakaskuntza-jardueraz gain, ikastetxeak beste proiektu batzuk eramaten ditu aurrera, hala nola Erasmus +, Normalkuntza, ikastetxeko irratia, HIPI, EUSLE, HBSP, TINS, Bidelaguna, Aniztasun-taldea, Hezkidetza, Agenda 2030, Irakurketa plana edota hondakinen kudeaketa.

Ingurune sozioekonomikoa

Gurea oso ikastetxea handia da eta egoera sozioekonomiko eta kultural anitzeko familia eta ikasleak jasotzen ditu. Donostiako gainerako auzoekin alderatuz familien batez besteko errenta-maila ertaina bada ere, azken urteetan familia askoren egoera sozioekonomikoa jaitsi egin da. Nahiz eta bekak lortzeko baldintzak zorrotz diren, bekadunen kopuruak gora egin du (aurten %36 da bekaduna). Bestalde, ikastetxeak hirian duen eraginpeko eremua handitu egin da, eta, horrekin batera, ikasle kopuruak ez ezik, ikastetxeko aniztasunak ere gora egin du. Ikasturtean zehar etortzen diren ikasleen kopurua oso altua da.

Bidelagun programan urtero ingurune sozioekonomiko baxuko zenbait ikaslek hartzen dute parte eta ikastetxeak berak Hasi eta Ikasi erakundearekin elkarlanean dihardu.

IPDari ekiteko egoera

Curriculum Proiektuan azaltzen diren helburuen artean Teknologia Berrien erabilera hobetzea, ikasle-irakasleen kompetentzia digitala garatzea eta ikastetxe eguneratu bat izatea aipatzen dira. Hori dela eta, orain arte irailean eta ekainean aurrez aurreko hainbat barne-formakuntza eskaini izan dira, adibidez, Sites, Classroom, Moodle eta koaderno digitala.

Intranet gisa erabiltzen ditugun UPA Irakasleak eta UPA Ikasleak webguneak ere eguneratuta daude eta haien erabilera, oro har, barneratuta eta zabalduta dago irakasleen artean.

Aitzitik, teknologia berrien erabilerari dagokionez, interes, ohitura eta trebetasun maila oso desberdineko irakasleak ditugu gure ikastetxean, eta aniztasun hori proiektu honen helburu eta epeak zehazterakoan kontuan izan dugun

faktore bat izan da.

Bestalde, irakasleen mugikortasuna ere kontuan hartu beharreko beste aldagai bat da. Izan ere, ikastetxean finkoak ez diren irakasleen kopurua oso handia izanik, ikasturte batean prestakuntza jasoko duten irakasle askok ez dute gure ikastetxean jarraituko eta errealitate horrek lortutako helburuen jarraikortasuna asko baldintzatuko du.

Azpiegiturak

Ikastetxearen hornikuntza teknologikoa, konektibitatea, plataformak, zerbitzu digitalak eta mantenua...

Gure ikastetxeak duen ikasle eta langile kopurua oso handia izanik kudeatu behar ditugun baliabideak ere ugari dira. Iazko ikasturtetik hasita ikasle bakoitzari ordenagailu eramangarri bat esleitu zitzaion. DBHn Chromebook-ak banatzea aukeratu zen eta batxilergorako Windows ordenagailuak aukeratu ziren. Irakasleen baliabideei dagokienez, mintegietan dauden ordenagailuak orokorrean ez dira nahikoak eta zaharkituta daude. Orain dela bi urte Eusko Jaurlaritzak irakasleei banatu behar zizkien ordenagailu eramangarriak gure ikastetxean ez ziren nahikoak izan irakasle bakoitzari bat egokitzeko eta ikasgeletan zeuden ekipoak eguneratzeko erabili ziren. Soberan geratu zirenak bi eraikinetako irakasle geletan mailegu gisa hartzeko prestatu ziren. Dena dela, ordenagailu hauen kalitatea oso baxua da eta matxura fisiko ugari izaten ari dira (estalkiaren bisagrak haustea, konektoreak barrura sartzea...).

Bi eraikinetako ikasgela guztietan irakasleak erabiltzeko ordenagailu bat dago eta proiektore bat bere arbel digitalarekin ere badago. Iaztik hasita ikasgeletan zaharkituak geratzen diren arbelak eguneratu beharrean ukipen-pantailak instalatzen hasi dira. Hauen kalitate eta aukerak arbel digitalena baino hobeak dira.

Baliabide hauetaz gain, DBHko eraikinean ikasleekin lan egiteko bi informatika gela daude. Liburutegian ere hainbat ordenagailu daude eta ikasturtearen arabera liburutegia bera erabili izan da zenbait informatika ikasgai aurrera eramateko. Gela hauetan dauden ordenagailuak nahiko zaharkituak daude dagoeneko. Batxilergoko eraikinean lau informatika gela daude. Hemen dauden ekipoetan iaz eguneraketa bat egin zen memoria gehiago izateko eta SSD diskoak gehitzeko. Aldaketa hauekin beraien errendimendua hobetu da. Gure ikastetxeak publizitate eta diseinu grafikoko goi-mailako ziklo bat ere eskaintzen du eta ziklo honetan dauden informatika geletan Mac ordenagailuak erabiltzen dira.

DBHko ikasleei banatu zaizkien eramangarriak kenduta, ikastetxeko ordenagailu gehiengo oso handi batean erabiltzen den sistema eragilea Windows da. Software libreko sistema eragilean erabilera minimoa da eta erabiltzekotan informatika ikasgaietan erabiltzen da ikasleek ezagutu dezaten.

Ikastetxeak zuntz bidezko konexioa du bi eraikinetan eta honen errendimendua orokorrean egokia da. Orain dela bi ikasturte wifi sare berria instalatu zen bi eraikinetako ikasgela guztietan eta honekin wifi estaldura oso ona dela esan daiteke. Dena den, instalazioak gela arruntak barne bakarrik hartzen zituen ikastetxeko behar zehatzetarako prestatuta dauden geletan (informatika gelak, teknologia tailerra, gimnasioak...) ez dago estaldura errepikatzailearik eta zenbait gunetan estaldura arazoak somatzen dira. Honetaz gain, wifi sareak Bigarren Hezkuntzarako bakarrik berritu zenez, zikloko ikasgeletan ez zen wifi sare berria instalatu eta beraz, ziklorako erabiltzen diren ikasgeletan wifi estaldura ez da ona. Internetarako sarbiderako beste zenbait konexio arazo ere izan dituzte azken urteetan.

Orokorrean gure ikastetxean Google domeinua erabiltzen da eguneroko lanetarako (email zerbitzua, hodeiko biltegiratzea, etab.). Zehazki, bi domeinu kudeatzen ditugu, bat ikasleentzat eta beste bat irakasleentzat. Bere garaian erabaki hau segurtasun irizpideengatik eta kudeatzeko erraztasunagatik hartu zen. Honetaz gain, Microsoft domeinuaren erabilera ere handitzen hasi da Hezkuntza Sailaren bultzadak direla eta: ikasle eta irakasle.eus kontuak banatzea, komunikazio ofizialak plataforma honen bidez egitea, Curridigi ikastaroa guztiz betetzeko baldintza bezala ezartzea...

Ikasleen jarraipena egiteko eta klaseak aurrera eramateko orokorrean ikaskuntza-ingurune birtualak erabiltzen dira. Gehien erabiltzen den ingurunea Google Classroom da, erabiltzeko sinpleago eta errazagoa delako eta gure Google domeinuarekin dagoeneko lotuta dagoelako. Zehazki, DBHn plataforma honen erabilera orokortua dago. Honetaz gain, software libreko Moodle plataforma ere erabiltzen da. Plataforma honen erabilera ez dago hain zabalduta eta batxilergoko zenbait ikasgaietan erabiltzen da.

Zerbitzu digitalei dagokienez, gure ikastetxeak IKT zerbitzua eta Premia zerbitzua eramaten ditu aurrera. IKT ardurapean Google domeinuko eta Moodle plataformaren kudeaketa eta ikastetxeko webgunearen mantenua eta eguneraketa sartzen dira. Premiako arduradunak, aldiz, ikastetxeko baliabide digitalen matxurez arduratzen dira. Honetaz gain, iaztik hasita ikasleen ordenagailu eramangarrien banaketa eta kudeaketa ere bere gain hartzen dute.

Proiektuaren justifikazioa

Proiektuak nola lagunduko dio ikastetxeari eta zergatik parte hartzen da.

Gaur egun, gure gizartea are eta digitalizatuago dago. Teknologiak etengabeko garapen batean daude eta gu, gizarte horren partaide aktiboak izanik, atzean ez geratzea ezinbestekoa da. Gure ikasleak murgilduta gauden eboluzio azkar eta basatiko zurrumbilo digitalari aurre egiten ahal dugun heinean laguntzeko prest egon behar dugu.

Ikasleek DBH eta batxilergo bukatzerakoan lan munduari zein beraiei bizitzari aurre egiteko profil digital bat lortu behar dute. Horregatik, gure ikastetxeak gizartetik eta lan-merkatutik ikasleei heltzen zaizkien eskaerei erantzun behar die geroz eta digitalizatuagoa den ingurune batean ondo moldatu daitezen. Guk geuk ere ezin ditugu ukatu bizitzan ari garen aldaketa eta eguneraketak eta gure lan egiteko modua bizitzeko modua aldatzen ari den antzeko modu batera ere moldatzeko prest egon behar dugu.

Gaur egungo ikasleek plataforma, aplikazio eta sare ugari erabiltzen dituzte eta hauen erabilera egokia bultzatzea eta erakustea garrantzitsua da. Irakasleok hor dugun rola funtsezkoa da gu beraiei ikaskuntza prozesuko gidariak baikara.

Digitalizazio proiektu hau bide honetan lagungarria izan daiteke. Alde batetik, gure ikastetxearen errealitatea benetan ezagutzeko balioko du. Bestetik, hurrengo ikasturterako denon artean digitalizazioari heltzen dioten helburu eta ekintzak diseinatzeko baliagarria izango zaigu.

Horrela, urtero zenbait hobekuntza eginez eta ematen ditugun pausoak guztion artean adostuz gure zentroa pixkanaka digitalki konpetenteagoa bihurtzea lortuko dugu.

Elaborazio prozesua eta lan-taldea

Lehentasunak zehaztu.

Planifikazio maila zehaztu.

Nor izango da eragilea?

Gure ikastetxean Digitalizazio Batzordea 7 kidek osatu dute. Batzordeburua ikastetxeko IKT arduraduna izan da, Unai Segundo (Informatika). Beste kideei dagokienez, ikastetxeko Berrikuntza Arduradun guztiek parte hartu dute, Alaitz Alegria (Euskara), Edurne Guerrero (Matematika), Elena Cruz (Ingelesa) eta Noemí Flaño (Fisika-Kimika). Eta hauetaz gain, zuzendaria (Joseja Huerta) ere kide izan da eta beste bi klaustrakideek parte hartu dute, Olatz Ferrán (Gorputz Hezkuntza) eta Arantza Eizmendi (Biologia-Geologia).

Aurtengo batzordearen zeregina 23-24 ikasturteko Ikastetxeko Proiektu Digitala prestatzea izan da mentore digitalaren laguntzarekin. Zeregin honek zenbait fase hartu ditu barnean. Horrela, lehen fasean diagnosi bat burutu da. Hau Selfie4Schools tresna erabiliz eraman da aurrera. Hurrengo fasean analisi bat egin da, non Selfie-tik jasotako emaitzak Selfie PTK tresnaren bidez aztertu diren eta AMIA taula bat lortu den. AMIA taulak emandako informazioarekin zuzendaritzarekin batera ildo estrategikoak adostu dira eta ildo hauek oinarri dituzten helburuak zehaztu dira hurrengo fasean. Helburuek klaustroaren oniritzia jaso dute. Bukatzeko, azken fasean helburu bakoitza lortzeko garatu behar diren ekintzak identifikatu eta denboralizatu dira eta ebaluaziorako irizpideak zehaztu dira.

Proiektu Digitalak Hezkuntza Proiektuari eta Urteko Planari egiten dion ekarpena

Gorago adierazi bezala, Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan jasota dago ikasle-irakasleen konpetentzia digitala garatzeko asmoa eta horretara bideratuta antolatu izan dira orain arteko irakasleentzako hainbat barne-formakuntza. Proiektu Digital honek klaustroaren eta ikasleen behar, gabezia eta baliabide digitalak era sistematiko eta adostuan identifikatzen lagundu ez ezik, ikas-komunitatearen konpetentzia digitala hobetzeko plana aurrera eramatea ere erraztuko du.

Bestetik, 2022-2023ko Urteko Planean urteko helburuetako bat klaustroaren %80k Hezkuntza Sailak prestatu eta ezarritako Curriculum eta Digitalizazio ikastaroa gainditzea dela zehazten da. Ikastaro honekin aurtengo klaustroaren zati handi batek A2 maila eskuratuko duela aurreikusten badugu ere, agerian geratu da A2 mailako ikastaro hori egiteko orduan irakasle guztiak ez direla berdin moldatu eta proposatutako ataza digitalak egitea zenbaitentzat erraza izan bada ere, beste askok laguntza handiagoa behar izan dutela. Hain zuzen ere, proiektu digitalak prestakuntzari lotuta irakasle guztion gutxieneko digitalizazio konpetentzia maila bat bermatzeko eta irakasle on artean egon daitezkeen ezagutza eta trebetasun maila desberdinak antzeman eta kudeatzen lagunduko digu.

Azkenik, Urteko Planean bertan Hezkuntza-komunitateari informazioa helarazteko plana aipatzen da. Gurea bezalako ikastetxe handi batean eguneroko jakinarazpen eta informazio orokorra modu eraginkorrean guztiongana

helarazteko zailtasunak ditugu. Arazo edo erronka horri aurre egiteko ere lagungarri suertatuko zaigu Proiektu Digitala.



2. IKASTETXEAREN EGOERAREN ANALISIA

Errealitatearen azterketa, prozesuetan IKTen erabileraren gaineko hausnarketa.

SELFIE edo beste autoebaluazio tresna batetik jasotako emaitzen hausnarketa.

Selfie-ren zortzi arloen emaitza globalen azterketa

Ba al dago alde handirik zortzi arlo tematikoen emaitzen artean? Ba dago arloren bat bereziki emaitza altuak edo bereziki baxuak dituen? Zure ustez, badaude emaitza harrigarriak arloren batean? Zergatik?

Azpiegituretan (C atala) emaitzak altuak izan dira eta kolaborazioa eta sareak eta ebaluazio jarduketetan emaitza baxuak (B eta G atalak) bereziki baxuak izan dira. Orokorrean ez dira emaitza harrigarriak.

Ikasleen konpetentzia digitalean (H atala) emaitzak ez dira oso altuak izan, baina galderak begiratura bai deritzogu ez datozela bat errealitatearekin.

Selfie-ren zortzi arloen banakako azterketa

Irakasle, ikasle eta zuzendaritza taldeko emaitzen artean alde handiak daude? Hala bada, desberdintasunak harritzen zaitu? Zeintzuk izan daitezke atzean dauden arrazoi nagusiak?

Ebaluazio jarduketetan (G atala) zuzendaritza taldeak emandako emaitzak nabarmen baxuagoak dira. Honen arrazoa beste bi erantzule taldeek galderak ondo ulertu ez izana edota erdibideko emaitza bat aukeratu izana izan daiteke. Gainerako arloetan ez dago bereziki deigarria den daturik.

Selfie-ren zortzi arloen banakako adierazpenen azterketa

Adierazpenen artean ba al dago desberdintasun nabaririk? Hala bada, desberdintasunak harritzen zaitu? Zeintzuk izan daitezke atzean dauden arrazoi nagusiak?

Nahiz eta arlo batzuetan adierazpenen artean ezberdintasun nabarmenak egon, ez dira bereziki aipagarriak.

Adierazpenen artean ba al dago irakasle, ikasle eta zuzendaritza taldeko emaitzen artean alde handirik? Hala bada, desberdintasunak harritzen zaitu? Zeintzuk izan daitezke atzean dauden arrazoi nagusiak?

Azpiegituren atalean ezberdintasun nabarmenak daude erantzule taldeen artean, zuzendaritzakoak altuenak izanik. Seguruenik bi norantzetako informazioa ez da ondo komunikatzen (zuzendaritzari ez zaio arazoen berri ematen eta irakasle eta ikasleek ez dakite laguntza teknikoaren funtzionamendua).

Ebaluazio jarduketetan (G atala) zuzendaritza taldeen emaitzak nabarmen baxuagoak dira. Honen arrazoa beste bi erantzule taldeek galderak ondo ulertu ez izana edota erdibideko emaitza bat aukeratu izana izan daiteke.

Ikasleen konpetentzia digitalean (H3 eta H4 galderetan) ikasleen emaitzak altuak dira eta honen arrazoa beraien pertzepzioa errealitatearekin bat ez datorrela izan daiteke.

Hiru erantzule taldeen emaitza globalen banakako azterketa

SELFIE txostenaren arlo tematikoen emaitzak nabarmen dira ezberdinak? Ba al dago arloren bat bereziki baxua edo altua besteekin alderaturik? Arloren baten erantzunak harrigarriak dira? Zergatik?

Orain arte adierazitakoaz gain ez dugu ezer berririk adierazteko atal honetan.

Orain arte egindako hausnarketen berrazterketa

Patroi edo inkonsistentziaren bat ikusten al da? Ba al dago zentzuren batean deigarria den erantzun zehatzen bat? Zeintzuk izan daitezke atzean dauden arrazoi nagusiak?

Patroi bat dagoela ematen du. Ikasleen edo irakasleen praktika eta erabilera neurtzeko eskatzen denean zuzendaritzaren emaitzak beti baxuenak dira. Antzeko modu batean, ikasle eta irakasleek ikastetxeko zerbitzuak (azpiegiturek, zerbitzu teknikoak, formakuntzak...) baloratzeko emaitza baxuenak eman dituzte. Honen arrazoa bi norantzetako komunikazioa ona ez dela izan daiteke.

Irakasle eta ikasle taldeen emaitza gehienak 3 eta 4 artean egon dira, askotan erdibideko emaitza aukeratu dutenaren seinale. Beharbada ez dute behar bezain serio hartu edo ez da honen garrantzia ondo transmititu.

Inkonsistentzia bezala, galdera batzuetan emandako emaitza altuak gure pertzepzioarekin bat ez datozela aipatzen dugu. Galderak ondo ulertu ez direlako, erdibideko emaitzak aukeratu direlako edota egindako lanak ondo komunikatu ez direlako.

Aipatu beharra dago zuzendaritzaren lagina oso txikia izan dela (bat edo beste ez du bete, besteren batek irakasleen galdetegia bete du...). Honekin lotuta, ikastetxean egon den parte hartzea txikia izan dela deritzogu. Alde batetik, agian ez dugu jakin analisi honen garrantzia ondo ez da transmititzen eta bestetik, irakasle batzuk ez dute serio hartu edota oposaketa aktiboa egin dute. Ezin dugu jakin, baina seguruenik batxilergoko partaidetza txikiagoa izan da.

Selfie-aren hamar arlo gehigarrien azterketa

SELFIEak hamar arlo gehigarri horietan jasotako erantzunen batek harritzen zaitu? Zeintzuk izan daitezke atzean dauden arrazoi nagusiak?

EPP jardueren erabilgarritasuna neurtzen duen galderan erantzun duten irakasleek jarduera horietan parte hartutakoak badira jasotako emaitzak baxuak direla iruditzen zaigu. Beharbada ez da jakin irakasleen interesekoak diren gaien inguruan formakuntzak eskaintzea.

Teknologia digitalen erabilera ikastetxean baxua dirudi, beharbada mailaren edota irakaslearen araberakoa izan daiteke.

Arlo garrantzitsuenen lehenestea

Zuretzat garrantzitsuenak diren SELFIEk lantzen dituen alderdietan jasotako erantzunen batek harritzen zaitu? Zeintzuk izan daitezke atzean dauden arrazoi nagusiak?

Galdetegiak gure ustetan osatze indize baxua izan du, zuzendaritza taldetik hasita. Nahiz eta ezin dugun ziurtatu, batxilergoan parte hartzea baxuagoa izan denaren seinaleak daude. Beharbada ez da lortu irakasleen inplikazioa analisi honek duen garrantzia ondo transmititu ez dugulako. Bestalde, Hezkuntza Sailatik etorri diren informazio nahasiak eta inposaketak eta egin behar izan dugun Curridigi ikastaro kaskarrak irakaslegoa berrikuntzarekin eta bereziki digitalizazioarekin zerikusia duen guztiaren kontra jartzea ere ekarri du.

Argi dagoen puntu bat irakasleen denbora falta da. Gure iritziz, denbora gehiago izango balute digitalki eguneratzeko prest egongo lirateke orokorrean. Nahiz eta Selfie-ak emandako emaitzetan ez den nabarmendu, gure inpresioa irakasleen konpetentzia digitala mugatua dela da, edo behintzat oso desorekatua dagoela (irakasle batzuk oso trebeak dira eta beste batzuk nahiko traketsak).

G atala (ebaluazio jarduketak) izan daiteke atal garrantzitsuenetakoa, lotura zuzena izan baitezake curriculum berrian ebaluazioak egiteko moduarekin.

Atal honetan eman dira orokorrean puntuazio baxuenak eta partehartzaile talde ezberdinen arteko puntuazioetan desberdintasun handieneko atala izan da. Puntuazio baxuak izateak indartu behar den atal bat izan daitekeela adierazten du eta puntuazioen arteko ezberdintasunak komunikazio modu eraginkorrean ez egitea.

AMIA analisia
Indarguneak, ahultasunak, aukerak eta mehatxuak.

Faktore negatiboak

Ahuleziak (barne-faktoreak)
(A-C1) Arazo ekonomikoak eta teknikoak dituzten familiei ematen zaien laguntza
(B-D-F1) Netiketa
(B-F1) Ikasleei laguntza eskaintzeko kanalak
(B1) Irakasle eta zuzendaritzaren arteko komunikazio falta
(C-D1) Datuen tratamendua eta pribatutasuna
(E1) Irakasleen konpetentzia digital desokeratua
(G1) Ebaluazio atala
(H1) Ikasleen konpetentzia digital mugatua
(A2) Irakasleen denbora falta
(A2) Zuzendaritzaren inplikazio falta digitalizazio estrategian azken urteetan
(B2) Teknologia digitalen inguruan ez da eztabaidatzen
(C2) Azpiegiturak hobetzeko beharra ikasle eta irakasleen aldetik
(D2) Digitalizazioko barne formakuntzetan parte hartze baxua
(F2) Baliabide digitalak ikasleen premietara egokitzea
(H2) Ikasleek informazioarekin lan egiteko (datuen babesa, lanen aitorpena, fidagarritasuna) modua
(H2) Ikasleen arreta etxean teknologia digitalak erabiltzen dituztenean
(A3) Irakasleen inplikazio falta
(A3) Teknologia digitalen erabileraren jarraipenik eta ebaluaziorik ez da egiten
(B3) Sare profesionalik ez egotea
(C3) Datuen babesarako estrategiak komunikatzea
(D3) Digitalizazioko kanpo formakuntzetan parte hartze baxua
(F3) Ikasgelan teknologia digitalen erabilera ez eraginkorra
(H3) Ikasleek irakasleei laguntza eskatzea
(A-C4) Ekarri zure gailua politika eza
(A4) Familien konpetentzia digital mugatua

Mehatxuak (kanpo-faktoreak)
(A-C1) Arazo ekonomikoak eta teknikoak dituzten familiei ematen zaien laguntza
(B1) Ikasturtean zehar irakasle berri asko datoz ikastetxera
(A2) Irakasleen denbora falta
(C2) Azpiegiturak hobetzeko beharra ikasle eta irakasleen aldetik
(H2) Ikasleen arreta etxean teknologia digitalak erabiltzen dituztenean
(D2) Akreditazio digitala lortzeko derrigortasuna

(A3) Irakasleen inplikazio falta
(B3) Sare profesionalik ez egotea
(D3) Digitalizazioko kanpo formakuntzetan parte hartze baxua
(A4) Familien konpetentzia digital mugatua

Faktore positiboak

Indarguneak (barne-faktoreak)
(A1) Teknologia berriak aplikatzerakoan zuzendaritzaren babesa
(C1) Laguntza teknikoa
(D1) Barneko formakuntzaren erabilgarritasuna
(E1) Hezkuntza komunitatearen komunikazio digitala
(F1) Irakasleen konfidantza eskolak prestatzeko eta komunikaziorako
(C2) Ikasleek erabiltzeko gailu digitalak
(E2) Irakasleek baliabide digitalak sortzea
(E2) Irakasleek ingurune birtualak erabiltzea

Aukerak (kanpo-faktoreak)
(C1) Laguntza teknikoa
(D1) Eusko Jaurlaritzako datuen babeserako protokoloa ezagutzen dugu
(G1) Galdetegiak prestatzeko tresna potenteak existitzen dira
(F1) Curriculum berriak IDU printzipioak aplikatzera behartzen gaitu
(A1) DigiCompEdu markoak Ikastetxeko Proiektu Digitala sortzeko derrigortasuna ezartzen du
(H2) Ikasleek interneten laguntza bilatzea
(H2) Konpetentzia digitala garatzea gure curriculumeko funtsezko konpetentzia bat da
(G2) Atzeraelikadura digitala erabiltzen ditugun ikaskuntza-plataformen bidez ematea ahalbidetzen da
(H3) Ikasleek etxean ikastetxeko lanetarako teknologia digitalak erabiltzea
(C3) Segurtasun politikak existitzen eta aplikatzen dira
(E3) Selfie 4 teachers tresna baliagarria da irakasleen konpetentzia digitala neurtzeko

Autoebaluazioaren ondorioak

Hausnarketa eta **AMIA** tresnatik ateratako ondorioak.

Indarguneak optimizatu **aukerak** areagotzeko

Ikastetxearen estrategia digitala diseinatzea.

Ahuleziei aurre egin **aukerak** aprobeitzatzeko

Ikasleen konpetentzia digitala hobetzea.

Ebaluazio hezitzailea eta hezigarria modu digitalean praktikan jartzen hastea.

Irakasleen konpetentzia digitala hobetzea.

Indarguneak optimizatu **mehatxuak** indargabetzeko

Ahuleziei eta **mehatxuei** aurre egin

Teknologia berrien inguruko informazioa irakasleei helaraztea.

Familien inklusio digitala bultzatzea.

Irakasle zein ikasleen baliabide digitalen beharrak asetzea.



3. HELBURUAK ETA EKINTZAK

LG Lidergoa eta gobernantza

Helburua		
Ikastetxeko estrategia digitala garatzeko digitalizazio batzorde iraunkorra sortzea eta batzorde honek IPDaren jarraipena egitea eta hurrengo ikasturteko IPDa idaztea		
Deskriptorea	Epea	
LG 1.1 Ikaskuntza digitalerako teknologien ahalmena argi markatzen da	2024/06/07	
Adierazlea	Mota	Helmuga
Ikasturteko IPDan adierazitako helburuetatik ... helburu garatu dira	Zenbakizkoa	4
Hurrengo ikasturteko IPDa idatzi da	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Digitalizazio batzorde iraunkorra osatzea		Zuzendaria	2023/09/29	
23-24 ikasturteko ikastetxeko urteko planean IPDaren ildo nagusiak zehaztea	Urteko planaren dokumentua	Zuzendaria	2023/10/27	
Ikasturteko IPDa aurrera eramatea	IPD dokumentua eta kontrol zerrenda	Digitalizazio batzordeburua	Ikasturtean zehar	
DBHn selfie-a egokitu eta pasatzea	Selfie galdetegia	Digitalizazio batzordeburua	2023/12/01	
Batxilergoan selfie-a egokitu eta pasatzea	Selfie galdetegia	Digitalizazio batzordeburua	2023/12/01	
24-25 ikasturteko IPDa idaztea	IPD dokumentua	Digitalizazio batzordeburua	2024/05/17	
OOGak 24-25eko IPDa onartzea	IPD dokumentua	Zuzendaria	2024/06/07	
24-25eko ikasturteko IPDa entregatzea	IPD dokumentua	Zuzendaria	Sailak ezartzen	

II Irakaskuntza eta ikaskuntza

Helburua		
Ikastetxeko bizikidetza hobetzeko eta ikasleen identitate digital osasungarria garatzeko DBHko lehenengo zikloko tutoretza planean etiketa digitala txertatzea eta praktikara eramatea		
Deskriptorea	Epea	
II 2.8 Trebetasun sozialak eta emozionalak garatzen dira	2024/05/31	
Adierazlea	Mota	Helmuga
Ekintzak aurrera eraman duten tutoreen GITetatik %...-etan netiketa lantzearen hobekuntza somatzen	Ehunekotan	75

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
DBHko lehenengo zikloko tutoretza planean etiketa digitala lantzeko ekintzak txertatzea		Orientatzailea	2023/10/27	
Etiketa digitala lantzeko ekintzak gelara eramatea	Tutoretza plana	Tutoreak	2023/12/21	
Etiketa digitala gelan lantzen direneko jarraipena egitea		Orientatzailea	2023/12/21	
DBHko lehen zikloko 3. aurrebaluazio bileretan irakasleei hobekuntzak nabaritu dituzten galdetzea	Kontrol zerrenda	Zuzendaritzako ordezkaria	3. aurrebaluazio 	

GP Garapen profesionala

Helburua		
Irakasleen konpetentzia digitala hobetzeko mintegiburuak formakuntza digitaleko beharrak jasotzea, behar horietan oinarritutako formakuntzak antolatu eta aurrera eramatea eta aplikatzen hastea		
Deskriptorea		Epea
GP 1.3 EGPa lerrokaturik dago banakako eta antolaketako premiekin		2024/05/31
Adierazlea	Mota	Helmuga
Formakuntza saioak aurrera eraman dira	Zenbakizkoa	4
Formakuntzetara etorritako irakasleen %...-k landutakoa geletan aplikatu du	Ehunekotan	25

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Behar digitalen galdetegia prestatzea	Galdetegia	Digitalizazio batzordeburua	2023/10/27	
Galdetegi digitala mintegietan pasatzea	Galdetegia	Mintegiburuak	2023/11/10	
Galdetegi digitaleko eskaerak aztertzea	Galdetegia	Digitalizazio batzordeburua	2023/11/24	
Formakuntza saioak prestatzea		Digitalizazio batzordeburua	Kurtsoan zehar	
Formakuntza saioak aurrera eramatea		Digitalizazio batzordeburua	2024/04/26	
Emandako formakuntzan landutakoa geletan aplikatzen den neurtzea	Galdetegia	Digitalizazio batzordeburua (Mintegiburuak)	2024/05/10	

EJ Ebaluazio jardunbideak

Helburua

Deskriptorea

Epea

EJ 1.1 Ebaluazio formatiboaren helmena hedatzen da

Adierazlea

Mota

Helmuga

Ekintzak

Baliabideak

Arduradunak

Epea

Egoera

EC Edukiak eta curriculuma

Helburua		
Ikasleen irteera-profilean adierazten den Konpetentzia Digitala garatzeko maila guztien mapa digitala prestatu eta aztertzea		
Deskriptorea		Epea
EC 2.6 Ikasleen gaitasun digitala curriculum osoan garatzen da		2024/05/31
Adierazlea	Mota	Helmuga
24-25 ikasturteko IPDan Ikasleen Konpetentzia Digitala garatzeko mapa digitalean aztertutakoa helburu	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Mapa digitala garatzeko tresna bat sortzea	Kalkulu-orria	Digitalizazio batzordeburua	2023/12/21	
Mapa digitaleko tresna betetzea	Kalkulu-orria	Mintegiburuak	2024/01/26	
Tresnak emandako erantzunak aztertzea	Kalkulu-orria	Digitalizazio batzordeburua	2024/03/15	
Aztertutakoa 24-25 ikasturteko IPDeko helburuetan isladatzea	IPD dokumentua	Digitalizazio batzordeburua	2024/05/17	

EN Elkarlana eta networking-a

Helburua

Irakasleek ikastetxearen funtzionamendua ondo ulertzeko kurtso hasieran eta ordezkioak ailegatzaren diren heinean ikastetxeko prozedura, azpiegitura digitala eta baliabide eta zerbitzu digitalei buruzko informazioa irakasleei helaraztea mintegiburuekin kurtso hasieran bilera baten bitartez eta harrera dokumentuan informazioa gehituz

Deskriptorea		Epea
EN 2.1 Komunikazio-estrategia esplizitua dago ezarrita		2024/05/31
Adierazlea	Mota	Helmuga
Kurtsoan zehar irakasleak informatu dira	Ehunekotan	75
24-25 ikasturteko harrera planean informazioa txertatzea	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Komunikazio protokoloa zehaztu eta idaztea		Ikasketaburua eta IKT arduraduna	2023/11/17	
Mintegiburuei komunikazio protokoloa helaraztea	Batzorde pedagogikoko bilera	Zuzendaria	2023/12/01	
Mintegietan komunikazio protokoloa transmititzea		Mintegiburuak	2023/12/21	
Ikastetxeko harrera dokumentuan komunikazio protokoloaren informazioa gehitzea		Ikasketaburua	2024/05/17	
Kurtsoan zehar ordezkioak informatzea	Galdetegia	Mintegiburuak	Kurtsoan zehar	

Helburua

Ikastetxeko oinarrizko egutegiaren inguruko informazioa periodikoki helaraziko duen newsletter bat prestatu eta bidaltzea

Deskriptorea		Epea
EN 2.1 Komunikazio-estrategia esplizitua dago ezarrita		2024/05/31
Adierazlea	Mota	Helmuga
Newsletter-ak bidali dira	Zenbakizkoa	2

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Newsletter-a aurrera eramateko tresnak aztertzea		Digitalizazio batzordeburua	2023/11/24	
Newsletter txantiloia prestatzea		Digitalizazio batzordeburua	2023/12/21	
Newsletter-eko informazioa prestatzea		Ikasketaburua (Ikasketaburu ordeza)	Kurtsoan zehar	
Newsletter-ak bidaltzea	Newsletter-a	Digitalizazio batzordeburua	Kurtsoan zehar	

AZ Azpiegiturak

Helburua		
Deskriptorea		Epea
AZ 1.1 Ikaskuntza-ingurune fisikoek optimizatu egiten dituzte aro digitaleko ikaskuntzaren aukerak		
Adierazlea	Mota	Helmuga

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera

IB Ikastetxeko berariazkoak

Helburua

Deskriptorea

Epea

Adierazlea

Mota

Helmuga

Ekintzak

Baliabideak

Arduradunak

Epea

Egoera



4. PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

	Helburua	Noiz ebaluatu	Nola ebaluatu	Nork ebaluatu	Betetze maila	Hobetzeko proposamenak
LG	Ikastetxeko estrategia digitala garatzeko digitalizazio batzorde iraunkorra sortzea eta batzorde honek IPDaren jarraipena egitea eta hurrengo ikasturteko IPDa idaztea	Maiatza hasieran	IPDan adierazita dauden helburuak konprobatzeko kontrol zerrenda baten bitartez eta hurrengo ikasturteko IPDa idatzita dagoen konprobatuz	Digitalizazio batzordeburua		
II	Ikastetxeko bizikidetzat hobetzeko eta ikasleen identitate digital osasungarria garatzeko DBHko lehenengo zikloko tutoretza planean etiketa digitala txertatzea eta praktikara eramatea	Maiatza hasieran	DBHko 1. zikloko 3. aurrebaluazio bileretan irakasleek bete beharko duten kontrol zerrenda baten bitartez	Zuzendaritzako ordezkaria		
GP	Irakasleen kompetentzia digitala hobetzeko mintegiburuek formakuntza digitaleko beharrak jasotzea, behar horietan oinarritutako formakuntzak antolatu eta aurrera eramatea eta aplikatzen hastea	Maiatza hasieran	Formakuntza saioen deialdiak behatuz eta mintegiburuei galdetuz	Digitalizazio batzordeburua		
EJ						
EC	Ikasleen irteera-profilean adierazten den Kompetentzia Digitala garatzeko ikastetxeko maila guztien mapa digitala prestatu eta aztertzea	Maiatza hasieran	Hurrengo ikasturteko IPDan mapa digitalarekin zerikusia duen helbururen bat agertzen den behatuz	Digitalizazio batzordeburua		
EN	Irakasleek ikastetxearen funtzionamendua ondo ulertzeko kurtso hasieran eta ordezkioak allegatzen diren heinean ikastetxeko prozedura, azpiegitura digitala eta baliabide eta zerbitzu digitalei buruzko informazioa irakasleei helaraztea mintegiburuekin kurtso hasieran bilera baten bitartez eta harrera dokumentuan informazioa gehituz	Maiatza hasieran	Mintegiburuei kurtso bukaeran galdetegi bat betearaziz	Digitalizazio batzordeburua		

EN	Ikastetxeko oinarrizko egutegiaren inguruko informazioa periodikoki helaraziko duen newsletter bat prestatu eta bidaltzea	Maiatza hasieran	Bidali diren newsletter-ak zenbatuz	Digitalizazio batzordeburua		
AZ						
IB						